



Tatiana Bellorin, Miren Clemente, Maritza Moreno, Fanny Alonso eta Pepita Izagirreren begiak. BERRIA

2025eko
martxoaren 7a,
ostirala
XVI. urtea
665. zenbakia
Prezioa: 0,50€

Askotarikoak izan dira emakumeek abiatutako borrokak, eta oraindik ere ugari dira gizartean. Maritza Moreno etxeko langileak ziurtatu du «lan baldintza duinengatik borrokan» jarraituko dutela. 2-3

Emakumeek utzitako ondarea



Pilar Garaialde: «Estatuak eragindako bortxaren biktima gehienok egia ezartzeko borrokan jarraitzen dugu»

ELKARRIZKETA, 4-5



Donostiako Ospitaleko hainbat langilek **Doako Parkinga Denontzat** dinamika sortu dute

HIRIGINTZA, 10

Orain mende bat baino gehiago,
Emakume Langileen Eguna
izendatu zuten Martxoaren 8a.
Ordutik, askotariko borrokak abiatu
dituzte emakume langileek. Gaur
egun ere, badaude aldarrikapenak.

Iragana eta oraina lotzeko hariak

Testua:
ODILE BOURGUIGNON GOÑI

Martxoaren 8a 1910ean izendatu zuten lehenengoz *Emakume Langileen Egun* gisa. Ordutik, askotariko adierazpenak egin dituzte mundu osoko emakumeek, baina, urteak pasatuta ere, letra larriz idazten da oraindik efemeride hori. Eta hainbat izan dira mende horretan, Gipuzkoan, emakumeek abiatutako borrokak; Andoaingo ehungintzako emakumeena eta Hernaniko Zikuñagako paper lantegikoena, esaterako. Baina badira iragana uste baino gertuago dagoela adierazten duten borrokak; kasu baterako, etxeko langileen eskubideen aldekoa. Gatazka horiek denek zera dute komun: emakume langileek abiatu zituztela.

Pepita Izagirre Andoaingo ehungintzan aritutako emakumeetako bat da, eta, 97 urte baditu ere, ez zaizkio ahaztu orduko langileen artekoak. Miren Clementek, berriz, Hernaniko paper lantegiko liskarrak presente dituen arren, etorkizunean du jopuntua. Eta Maritza Moreno orain sei urte iritsi zen Donostiara, eta etxeko langileen eskubideen alde ari da. Ez dute elkar ezagutzen, baina Izagirre, Clemente eta Morenoren istorioak elkarri lotuta daude. Azken finean, denek adierazi dute orainari begiratzeko iraganetik ikasi behar dela. ●



ANDONI CANELLADA / FOKU

Maritza Moreno eta Tatiana Bellorin | Etxeko langilea eta SOS Arrazakeriako teknikaria

«Gizarteak ahaztu egin du emakume migranteen jubilazioa»

Maritza Moreno (Nikaragua, 1966) duela sei urte hasi zen etxeko langile bezala lanean, 2019an. Donostian bizi da, eta gizarte eta osasun arloko ikastaroa egiten ari da egun, iaz langabezia prestazioa lortu zuelako. Etxeko langileek 2022an lortu zuten lehenengoz lege hori. Izan ere, ordura arte Espainiako Gobernuak ez zuen onartzen etxeko langileek langabezia prestazioa eskuratzeari.

Morenok Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kideei esker jakin zuen zer eskubide dauzkan. «Euskal Herrira etorritakoan, uste genuen ez genuela eskubiderik, baina, aholkularitza eskatzean, baietz esan ziguten, baditugula eskubideak. Kontua da tarte handia dagoela esatetik egitera». Geroztik, Morenok SOS Arrazakeriak antolatzen dituen kafe taldeetan parte hartzen du.

Tatiana Bellorin SOS Arrazakeriako teknikaria (Nikaragua, 1988) azaldu du kafe taldeen helburua dela emakumeek «sareak sortzeko elkargune bat» edukitzea: «Emakumeentzako erreferentziazko elkargune eroso bat izatea da asmoa, beste emakumeen bizipenen berri izateko eta haien eskubideei buruz informatzeko». Horrez gain, Morekok trebatze eskoletan ere parte hartzen du. «Ez gara soilik kafea hartzen egoten. Arduradunek askotariko hitzaldiak

antolatu izan dituzte, hala nola autoestimuari eta sexualitateari buruzkoak».

SOS Arrazakeriako kideek aholkularitza bulegoa dute Erreterian, eta teknikariak esan du azken urteotan kezka bat nagusitu dela: jubilazioa. Izan ere, Morenok dio «mugak» dituztela erretiratu ahal izateko: «Nik 58 urte ditut. Erretiratzen nautenean ez ditut kotizatuta edukiko eskatzen dizkidaten hamabost urteak, eta, beraz, nire pentsioarekin ezingo dut gela baten alokairua ere ordaindu». Kontatu du bestelako muga batzuk ere badituztela, hala nola nagusiak lan kontratua egin nahi ez izatea, edota langileak egindako ordu guztiak aitortu nahi ez izatea. «Gizarteak ahaztu egin du emakume migranteen jubilazioa», esan du Bellorinek.

Hori ikusita, SOS Arrazakeriako teknikariak uste du garrantzitsua dela «sentsibilizazio lana» egitea, eta jopuntuan jarri ditu familia kontratatzaileak eta instituzioak: «Familiek jakin behar dute etxeko langileek zer eskubide dituzten, eta instituzioek esku hartu behar dute horretan. Kontrol eta inspektzioen faltak dakar lanaren prekaritatea».

Morenok eta Bellorinek ziurtatu dute etxeko langileen «lan baldintza duinen alde borrokan» jarraituko dutela. Horretarako biltzen dira kafe taldeetan: Donostian, Tolosan, Zarautzen, Irunen eta Erreterian. Informatzea eta ikeritzea ezinbestekoa dela berretsi du teknikariak, haren esanetan «zor historiko bat» baitago etxeko langileekin. ●

Miren Clemente | Hernaniko Zikuñagako paper lantegiko langile ohia

«Guk argi genuen: denak ala inor ez»



Zikuñagako paper fabrikako
emakumeak, lantegian. HERNANIKO UDAL ARTXIBOA

Pepita Izagirre | Andoaingo La Algodonerako langile ohia

«La Algodoneran izaten genituen oihal onenak»

Pepita Izagirre (Andoain, 1927) 10 urte zituela hasi zen Andoaingo La Algodonera fabrian lanean. Egun, 98 urte betetzear dituela, gogoan ditu orduko kontuak. Etxe ondoko kafetegian eseri da, hainbestetan egin bezala, eta orduko lanaldiari buruz aritu da: «Jaunartzea egindakoan lanean hasitenginen. 10 urterekin hasi nintzen ni, egunean sei orduz. Baina, 14 urte betetzear, zortzi ordutara luzatzen zen laneguna». Langileak umeak izanik, altuera batera igo behar izaten zuten makinetara iristeko.

Fabrian lanean hasi eta berehala, haurtzaindegira eraman zuten Izagirre. Izan ere, bazuen berezitasun bat Andoaingo La Algodonera enpresak: 1920an haurtzaindegia sortu zuten han; hain zuzen ere, emakumeak zirelako enpresako langile gehienak. Hori dela eta, Izagirre 12 urte ingururekin hasi zen umeak zaintzen, bi mojarrekin eta beste lankide batekin. «Hamalau sehaska izaten genituen. Umeak hilabete eta erdirekin ekartzen zituzten. Mutilak 7 urte bete arte egoten ziren haurtzaindegian, eta neskak, aldiz, 14 urte bete arte. Gero lanean hasten ziren», kontatu du. «Azken finean, umeak zaintzen zituen ume bat nintzen».

Haurtzaindegian egoten ziren mojek ume helduagoak zaintzen zituzten, eta fabrikako emakume gazteei josten erakus-

ten zieten, lanaldia bukatzean. Orduan ez ziren falta emakumeak elkartzeko tokiak. «Oso ondo moldatzen ginen gure artean, irteerak ere egiten genituen igandeetan», azaldu du Izagirrek.

Gogoan du «soldata hobia» lortzeko greba bat edo beste egin izana, baina dio ez zituztela «baldintza egokiak» borrokarekin jarraitzeko. Fabrian gehienak emakumeak baziren ere, gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala nabarmena zen. Izan ere, enpresak hiru modutan sailkatzen zituen langileak: umeak, emakumeak eta gizonak.

Fanny Alonso (Andoain, 1969) moda diseinatzaileak Pepita Izagirreren eta ehungintzako beste hainbat emakumeen bizi istorioak jaso ditu azken urteotan, eta kontatu du orain bost urte Izagirrek mahaiaren bueltan esandakoa iltzatu zitzaioela. «La Algodoneran izaten genituen oihal onenak»: horixe esan zion Izagirrek Alonsori egun hartan. Geroztik, ikerketa lanetan hasi, talde bat sortu eta ehungintzako emakumeei ahotsa ematen dien proiektu bat ondu du Alonsok: *Kotoiko emakumeak*. Erakusketak antolatzen ari da Gipuzkoako hainbat herritan. «*Kotoiko emakumeak* proiektuaren helburua da emakume horiei ikusgaitasuna ematea eta aitortza egitea», esan du. Haritik tiraka, *Kotoi* izeneko arropa marka bat ere sortu du, Maialen Porroyrekin, eta esker ona adierazi die orduko La Algodonerako langileei. «Azken finean, haien lanari esker gaude gu gauden lekuan». ●

La Algodonerako langileak,
1955ean, Bizkaira
egindako irteera
batean.

SOR MARIA OIARZABAL / ANDOAINGO
UDAL ARTXIBOA

Miren Clementek (Tolosa, 1943) ume-umetatik izan du «injustizien aurka» egiteko borondatea. 14 urte zituela hasi zen lanean Zikuñagako (Hernani) paper lantegian, eta berehala sartu zen frankismoak baimendutako sindikatu bakarrean: Sindikatu Bertikalean. Clementek ahotsa zuen sindikatuan, baina ez zuen bozkatzeko aukerarik. Garai hartako eskaeren artean, adibidez, zera zegoen: laneko mantalen neurria langileen gorputzera molda zezatela, oso handiak baitziren ematen zizkietenak. Gerora, enpresako epaimahaiaren parte egin, eta sektorearen araberrako hitzarmen kolektiboak adosten saiatu ziren. Dena den, Clementeren arabera, sindikalismoak «langileak defendatu» behar ditu, eta adierazi du ez zela hori gertatzen Sindikatu Bertikalarekin. 1967an greba egin zuten paper lantegiko emakumeek. 450 pertsona inguruk egin zuten lan fabrian; 30 emakumek egin zuten greba, «paperaren manipulazioaren saileko emakumeek», hain zuzen. Gatazka horrela hasi zen: egin beharreko jardueraren gutxienekoa gainditzean, langileek konpentsazio ekonomikoa jasotzen zuten, soldataz gaindikoa. Baina, aurretiazko abisurik gabe, gutxiago kobratzen hasi ziren —ordura arte baino %40 edo %50 gutxiago—, gutxieneko jardueraren balioa igotzearen ondorioz. Lehenik, idatziz aurkeztu zituzten

kexak, baina, enpresaren erantzunaren faltan, planto egin zuten. Produktio osoa gelditzea lortu zuten, eta Clementek dio horrela jakin zuela, langile «gutxi» izanda ere, «zenbaterainoko indarra» eduki zezaketen. «Honako hau izan zen enpresaren estrategia: emakume guztiak kaleratu beharrean, egunero bi langile kaleratzea», esan du. «Bitarte horretan, kaleratuen etxera joaten ziren amore eman zezatela eskatzeko. Baina guk argi genuen: denak ala inor ez. Azkenean, denak izan ginen, bai: denak kaleratuak».

Horren ondoren, paperaren manipulazioaren saileko emakumeek bilerak egin jarraitu zuten: «Elizaren eskumeneko lokaletan edo tabernetan elkartzen ginen, batuta jarraitzeko helburuz». Gainera, azpimarratu du «ezinbestekoa» izan zela Hernaniko bizilagunen elkartasuna: «Erresistentzia kutxa bat egin zen, eta jendeak ez zuenetik ere ematen zuen». Greba egin zuen emakume bakar bat ere ez zen bueltatu Zikuñagako paper lantegira.

Gerora, garbitzaile lanetan hasi zen Clemente, eta egin zuen greba bat edo beste. Jubilatua dago egun, baina lanean jarraitzen du arlo politikoan. Pentsio duinen alde ari da buru-belarri, gizarteak «aintzat» har ditzan. Adierazi du «genero arrakala nabarmena» dagoela, emakumeek egin izan dituztelako «ordaindu gabeko zaintza lanak», eta, hortaz, ez dutelako «kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubiderik». Gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata parekatzeko ahaleginetan ari dira. Izan ere, Clementek uste du taldean gauza asko lor daitezkeela. ●

Aitor Arroyo Askarai

ALEGIA— Pilar Garaialde Salsamendik (Alegia, Gipuzkoa, 1957) gertutik ezagutu ditu militantzaren aurkako errepresioa eta indarkeria. 1980an atxilotu zuten, bai eta torturatu eta Komando Autonomoetako kide gisa kondenatu ere. Handik bi urtera, 1982an, Triple A erakundeak haren aita hil zuen. 1987tik 1991ra Herri Batasuneko zinegotzi izan zen, eta urtebete eman zuen Uruguain euskal errefuxiatuen sostengu politikoan. Mugimendu feministan ere egin du ibilbidea, eta, gaur egun, Egiari Zor fundazioko bozeramailea da, bestea beste.

43 urte pasatu dira zuen aita hil zutenetik. Gaur egun nola sentitzen zara?

Egia ezartzeko borrokan jarraitzeko gogo eta asmo osoarekin. Egiarekin batera aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak lortzeko borrokan jarraitzeko indarrarekin. Estatu bortxaren biktimok jasaten dugun diskriminazioa gainditzeko borrokan jarraitzeko konpromiso irmoarekin.

Urteen eraginez aldatu al dira sentimendu horiek?

Bai, noski. Hasieran disoziazio moduko bat egin nuen. Hain zen gogorra gertatutakoa, hain sinestezina, hain mingarria... Hainbestekoa zen haserrea, halakoa zen mina eta amorrua... Ezin dut deskribatu hitzekin. Gertatutakoa ez zen nire barnean kabitzen. Zer izango zen hurrengoa? Ez al ginen nahikoa jazarpen sufritzen ari? Ni baldintzapean aske nengoen; izan ere, hiru hilabete lehenago, [Espainiako] Auzitegi Nazionalak zigortu ninduen urtebetez azpiko kartzela zigorrera, eta, ordaintan, hiru urte pasatu behar nituen baldintzapean aske. Beldurra ere sentitzen nuen. Orduan, jakina aldatu direla sentimenduak. Indar, konpromiso eta borrokarako gogo bizi bihurtu dira.

Zerk bultzatu zintuen militatzeko pausoa ematera?

Bestea beste, 1968an Alegian izan ziren atxiloketek, Burgosko Prozesuan epaituetako bat Jokin Gorostidi nire aitaren lehengusua izateak, Txikiren eta Otaegiren exekuzioek, euskararen egoerak, Franco hil ondorengo mugimendu sozial eta politikoak, eta amnistiaren aldeko aldarrikapenak. Horrek guztiak bultzatu ninduen militatzeko pausoa ematera: lehen-lehenik, Amnistiaren Aldeko Mugimendura eta euskarara, gero Komando Autonomoekin harremana egitera, eta ondoren, Antinuklearrak, Herri Batasuna,

«Militatzen jarraituko dut osasun fisiko eta mentalak laguntzen didan bitartean»

PILAR GARAIALDE SALSAMENDI

Egiari Zor fundazioko bozeramailea

Pilar Garaialde Komando Autonomoetako kide izateagatik atxilotu zuten, 1980an, baita torturatu ere. Egiari Zor fundazioko bozeramailea da gaur egun, eta urteak daramatza estatuaren biktimen eskubideen aldeko borrokan.

Gestorak, LAB sindikatua, mugimendu feminista...

Behin baino gehiagotan jasan duzue estatuaren indarkeria.

1980an, atxilotu nindutenean, torturatu egin ninduten, beste hainbat eta hainbat bezala. Torturak salatu nituen prentsaurreko batean, Gipuzkoako gobernadore zibilak mehatxatu ninduen... Terrorismoaren aurkako legearekin atxilotu ninduten gehiagotan ere, eta epaitegitik pasatu gabe askatu. Torturak ez ditut inoiz frogatzerik izan, Euskal Herrian hainbestetan gertatu den bezala. **Egiari Zor fundazioko bozeramaile zara gaur egun. Zer-nolako lana da ardura hori kudeatzea?**

Egiari Zor fundazioan kide ezin hobeak daude, bizitza osoko konpromiso politikoan dihardutenak, lan amaigabea. Sekulako lana egiten dute biktimek jasan duten kategorizazioa gainditu eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten guztiei aitortza maila bera ziurtatzeko. Ezkutuan dauden egiak itzaletik argira atera daitezten egiten dute lan, baita gure biktimarioen inpunitatea publikoki salatzen ere. Beste lan asko ere egiten dituzte, hala nola bizikidetzaren eratzeko justizia

eredu alternatibo bat eraikitzen eta biktima guztien aitortza eta erreparazioa erraztuko duten mekanismo berritzaileak lortzen, ondorioak betikotu ez daitezten eta konponbideek oztopo gehiago izan ez ditzaten.

Lan horien barruan, zein da zure ardura?

Jendeak ni ikusten nau komunikabideetan, baina bene-benetako lana atzean dauden kideen konpromisoari, entregari eta militantzari esker egiten da, batik bat.

Gogora institutuko kontseiluko parte izateko proposatu zintuzten, baina azkenean ez zen gauzatu. Esan izan duzu proposamenak aurrera egin ez izana ez zela izan ezaugarri jakin batzuk ez betetzeagatik.

Ez zen gai pertsonala izan, ez. Ordezkatzen dudana kanpoan uzteko izan zen; alegia, estatuaren biktimen ordezkaririk ez egotea izan zen ni ez onartzeko arrazoa. Ez dut pertsonalki hartu, baina diskriminazio eta tratatu txar horrek min egiten du. Izan ere, badakite birbiktimaziora eramaten gaituztela, eta horren jakitun egiten gaituzte.

Gogora institutuko kontseiluan ETaren bi biktima daude, eta egon behar dute, nola ez. Baina,

benetan bizikidetzaren eta gutxieneko justizia baten alde egin nahi bada, aitortza minimo bat egongo bada, eta ez errepikatzeko bermeak ezarri nahi badira, estatuaren biktimen ordezkaritza batek ere egon beharko luke. Halere, EAJk eta PSEk aurretik zuten ni baztertzeko paktua egina, estatuaren biktimen ordezkaritza baztertzeko.

Zer da memoria zuretzat?

Memoria garrantzi handia du bizitzako edozein arlotan. Euskal Herriko gatazka politikoaren eremura etorrita, hamarkadako konfrontazio armatuaren ondorioz, giza eskubideen urraketa eragin duten hainbat indarkeria egon dira. Desberdina da biktima eta biktimario batzuei ematen zaien tratua eta beste batzuei ematen zaiena. Indarkeria jakin baten biktimek jaso dute dagoen aitortza ofiziala, eta legeak ematen dizkien eskubideak erabili ahal izan dituzte. Estatuak eragindako bortxaren biktima gehienok, ordea, egia ezartzeko borrokan jarraitzen dugu oraindik, heriotza eta giza eskubideen urraketa bakoitza ofizialki aitortu eta erreparatu dadin.

Poliziaren indarkeria, salbuespenezko espetze politika, eskuin



«Egiari Zor fundazioan kide ezin hobeak daude, bizitza osoko konpromiso politikoan dihardutenak»

«Emakumeok munduko biztanleriaren erdia gara, eta askotan kolektibo bat bagina bezala tratatzen gaituzte»



AITOR ARROYO

MOTZEAN

● Erreferente politiko bat?

Ezin dut izen bakar bat esan. Orokorrean, emakume feminista erradikal abolizionistak.

● Atsedeen hartzeko leku bat? Udan, hondartza, eta, bestela, mendia.

● Euskal Herriko toki kutun bat? Hauek dira galdera zailenak. Bakarra esatekotan, Getaria.

● Eta atzerriko leku kutun bat? Montevideo [Uruguai].

● Ereserki bat? Zutik emakumeak.

● Zaletasun bat? Irakurtzea, mundu guztietara eramaten baitzaitu.

muturra, gerra zikina, tortura, FOP edo FSerekin izandako usteko liskarren ondorioz hildakoak... Gertakizun horiek guztiak ere memoria dira. Eta kasu gehiegitan bertsio ofizialak eraiki badituzte, Poliziaren jokabidea justifikatzeko eta benetako krimenak ezkutatzeko eraiki dituzte. 12/2016 eta 15/2019 legeen bidez eratorri diren aitortza ofizialek garbi azaltzen dute diodana.

Zer azaltzen dute, zehazki?

Bertsio ofizialak gezurrak zirela. Oso ezagunak egin diren kasu ugari daude. Esaten dudan honek guztiak eragin zuzena du memoria lantzerakoan, eta egia horrek guztiak osatzen du memoria. Nazio Batuen kontalari Fabian Salviolik esan bezala, guk ere, estatuen biolentziaren biktimok, memoriarako eskubidea dugu. Ona litzateke urtero oroitu den Estatuaren Biktimen Eguna ezartzea, eta aukera paregabea litzateke La Cumbre jauregia estatuen biktimen memoria gune bilakatzea. Benetan bizikidetzaren parametro demokratikoetan eraiki nahi bada, behintzat.

Zure ustez, ba al dago ezberdintasunik emakumeen eta gizonen trataeran?

Jakina badagoela aldea emaku-



OMENALDIA. Triple Ak hil zuen Pilar Garaialderen aita Pablo Garaialde, 1982an. Irudian, Garaialde eta haren senideak, 2012ko ekainaren 23an, Alegian, aitari egin zioten omenaldian. HITZA

meen eta gizonen artean. Tortura kasuetan garbi ikusten da emakumeekiko eta gizonekiko ezaugarrietan: emakumeoi umiliazioa, gutxiespena, sexu birtxa bereizia eragin dizkigute. Azken finean, patriarkatuaren aurpegirik beltzenetakoa du torturak; hala tortura fisikoak nola psikologikoak. Politika oso maskulinizatuta dago. Memoria lantzerakoan, emakumeok ahaz-

tuak izan gara, eta hori oso larria da, ondorengo belaunaldiak izango dituzten erreferenteak, gehien-gehienak, gizonetzkoenak izango baitira.

Urteekin aldatu al da egoera?

Egia da azken urteetan kontzientizazio bat egon dela eta ari direla zenbait lanketa egiten emakumeekiko injustizia historiko hori amaitzeko. Zoritxarrez, askotan hutsune galantak sumatzen dira

datu bilaketan, eta zailtasun ugari. Emakumeok munduko biztanleriaren erdia gara, eta askotan kolektibo bat bagina bezala tratatzen gaituzte. Diskriminazioa laborala jasaten dugu: lan estereotipatuak, eta zailtasun handiak zoru itsaskorra edo kristalezko sabaiaik gainditzeko. Soldata arrakala ere hor dago. Gutxiengo soldata jasotzen dutenen artean, gehienak emakumeak dira, eta

horrek pentsioetan eragin zuzena du. Lan feminizatuak gutxiago baloratzen dira. Zaintza gure gain dago, esaten direnak esaten direla ere.

Parekidetasuna berdintasuna balitz bezala saldu nahi izan digute. Eta horrela ere, parekidetasunean gure presentzia %40 izatea nahikoa iruditzen zaio patriarkatuari, eta esango nuke gehiegizkoa ere iruditzen zaiola, guri ez dagokigun zerbait emango baligute bezala. Aurten, dagoeneko, bi emakume erail dituzte. Espainiako Estatuan normalizatuta dago urtean 60-70 bat emakume erailteza. Genero indarkeriaren eta indarkeria sexistaren gainean sakonago eta serioago hausnartu behar dugu: zerk huts egiten duen, nola landu heziketa, prebentzio politikak... Elkarretaratzetik harago, asko dute egiteko botere politikoak eta gizarteak.

Urteak ez dira alferrik pasatzen, eta militante zara oraindik ere.

Militatzen jarraituko dut osasun fisiko eta mentalak laguntzen didan bitartean. Ez dut beste bizitzeko modurik irudikatzen esku-bideen aldeko borrokan ez bada. Hainbeste dago egiteko... ●

Mozorroen jolas hori



IRITZIA

Maddi Aiestaran

Urteko sasoi honetan, balkoiak eta leihoak koloretako trapuz janzten direnean, hainbat eta hainbat izaki iristen dira gure herrietara. Lehenago, beti pentsatzen nuen Nafarroara, Zuberoara edo Nafarroa Beherera joan behar genuela izaki eta festa horiek ezagutzeko. Beti iruditzen

zitzazkidan interesgarriagoak niretzat urruti zeuden toki horietan ospatzen ziren inauteriak, gure inguruko dena delakoa baino. Eta ezagutu ahala han-hemengo jendea, eta ibili ahala han-hemengo jendearekin, jakin nuen bazirela Gipuzkoara ere iristen diren hainbat eta hainbat izaki: Oiartzungo intxixuak eta mendiko sorginak, Abaltzisketako txantxoak, Legazpiko Lintx eta katamaloak, Eibarko kokoak, Aretxabaletako eta Eskoriatzako kintoak, Segurako hartza, Usurbilgo Urde, Donostiako lorezainak, Lezoko Trapujalea... Inauteriak, han edo hemen, bere horretan iruditzen zaizkit interesgarriak orain.

Gurean, inauteriak iritsi bitartean, asteak eta asteak pasatzen genituen eskolan kantuak eta dantzak entseatzen. Asteburuan dantzek hartzen zituzten herriko kaleak. Tolosako karroza eta desfile jendetsuei egiten genien bisita. Etxean, hankaz gora

uzten genuen mozorrotarako arropa gordetzen genuen egurrezko kutxa. Txaranga soinuak entzuten genituen goizero irrastian. Iristen zen asteartea, eta urduritasunez brinkoka joaten ginen eskolara; eta eskolatik etxera, hamabi eta erdietan.

Eguerdi hori niretzat urteko eguerdirik bereziena izaten zela gogoratzen dut. Eguna iritsi bitartean, asteak eta asteak pasatzen genituen etxean egun horretarako mozorro apainapain bat prestatzen: zertaz jantzi erabakitzen, nola egin pentsatzen, eskulanak egiten, pegamentua zabaltzen, jantzia probatzen, zer falta zen konturatzen, xehetasun bakoitzari arretaz erreparatzen. Eta eguerdi horretan, azkar-azkar jaten genuen platerean jartzen zigutena, bezperan prest utzitako mozorroa janzten genuen soinean, kolokatzen genuen dena delakoa perfekzioz, konprobatzen genuen ez zela ezer

Niretzat mozorrotzea da sortzea zer bat eta bihurtzea zer hori gutxienez egun batez, jantziz eta ez-jantziz, eta parkean jolasean pasatzea eguna, arratsaldea, zer hori izanez

falta ispiluan, eta ipurdia geldi mantendu ezinda begiratzen genion erlojuari, berriz eskolara abiatzeko garaia iritsi arte. Gero, inoizko harroen erakusten genien lagunei gure mozorroa, paseatzen ginen herriko kaleetan zehar, egiten genituen aurrez entseatutako dantzak, abesten genituen ikasitako kantuak, erretzen genuen Miel Otxin plazaren erdian, eta parkean jolasean pasatzen genuen arratsaldea. Hori zen guretzat inauteria; ez igual ez-dakit-nongo aparteko

festa bezain interesgarria, baina bai urteko gauzarik dibertigarrienetakoa.

Etorri dira makina bat udaberri ordutik. Aldatu zaigu inauteriei begiratzeko modua, aldatu ohitura, ospakizuna, interesa, bizimoldea. Eta oraindik ere, gaur egun, urte sasoi honetan, balkoiak eta leihoak koloretako trapuz janzten direnean, eguerdi haien zera bereziarekin akordatzeko naiz urtero. Gure herrietako izaki eta festa diferenteez harago, zeinak are interesgarriago iruditzen zaizkidan gaur egun, gutxienez egun bat mozorrotuta igarotzeko aitzakia dira niretzat inauteriak. Horregatik diot bere horretan iruditzen zaizkidala interesgarriak: niretzat mozorrotzea delako sortzea zer bat eta bihurtzea zer hori gutxienez egun batez, jantziz eta ez-jantziz, eta parkean jolasean pasatzea eguna, arratsaldea, zer hori izanez.

Mozorroen jolas hori zenbat gustatzen zaidan akordatzeko naiz urtero urte sasoi honetan, eta beti pentsatzen dut igual aitzakiarik gabe ere bihurtu genitza-keela eguerdiak berezi. ●

HITZ GUTXITAN



‘Zurrumbilao’, gazteei arretaz entzuteko egitasmoa

DONOSTIA— Euskal Herriko bost gaztetik batek osasun mentaleko arazo bat du diagnostikatua, eta azken urteetan antsiolitikoaren kontsumoa sei aldiz handitu da gazteen artean, bereziki, 11-12 urteko gazteen artean. Egoera horri erantzuteko, Elhuyarrek Zurrumbilao proiektua sortu du, gazteen osasun mentala zertan den gertutik jakiteko eta gazteei arretaz entzuteko. Elhuyarreko koordinatzaile nagusiak aurkeztu zuen otsailaren 25ean, Donostian —irudian—.

ANDONI CANELLADA / FOKU

ESALDIA

«Euskal gatazkaren testuinguruan, emakumeak norbaiten norbait baino gehiago dira»

MAIDER GALARDI
Kazetaria
eta ikerlaria



ZENBAKIA

103

CAF tren konpainiak 2024ko irabazien emaitzak plazaratu zituen otsailaren 26an. 103 milioi euro irabazi zituen, 2023an baino %16 gehiago —89 irabazi zituen—, eta eskari zorroa inoizko handiena du.

Gipuzkoako Merkál Calzadoseko langileek amaitu dute greba

Merkál Calzados enpresako Gipuzkoako langileen baldintzak hobetzeko akordio bat lortu dute. Zazpi hilabeteko grebaren ondoren, ordutegiei eta asteeko atsedinari buruzko hobekuntzak adostu dituzte ELAK eta enpresak. Greben ondorioz, Gipuzkoan dituzten zortzi denden erdiak itxita egon dira.



*“Oso interesgarria da
BERRIA ikasgela, gaur
egungo gazteek euskarazko
egunkari bat erreferente gisa
izango dutelako”*



Ane Telleria Iparragirre
Filosofia eta Balio Etikoen
arloko irakaslea



Egunero ikasten delako

› berria.eus/ikasgela

aldi hau kontatzeko

berria



Haritz Alberdi, Iñaki Ostolaza eta Nagore Alkorta, otsailaren 19an, Zumaian. ZUMAIKO UDALA

Herria, epe luzeko lantoki gisa

Azpeitiko, Getariako eta Zumaiko udalek udaltzainen kontratazio prozesu bateratua egingo dute. Herritarrenganako gertutasunari eta euskararen gaineko ezagutzari emango diote garrantzia.

Mireia Galarza Bastida

Zumaiko, Getariako eta Azpeitiko udalek otsailaren 19an iragarri zuten udaltzainen kontratatze lan eskaintza bateratua egingo dutela, eta abian da prozesua. Zehazki, bost langile kontratatuko dituzte, Zumaierako hiru, eta Getariako eta Azpeitirako bana. Lehengo astean, kudeaketa gomendioa formalizatzeari behin-behineko onarpena eman zioten Zumaiko Udaleko ohiko udalbatzarrean. Izan ere, herri horretako udalak kudeatuko du lan eskaintza.

Iñaki Ostolaza Zumaiko alkatearen hitzetan, badira urte batzuk udaltzainen kontratatze lan eskaintza egitea pentsatzen hasi zirela. «Pandemia garaian hasi ginen ideia honi tiraka, ikusten genuelako gure herrietara etortzen ziren udaltzain asko, iritsi bezain pronto, joan egiten zirela». Eskualdeko beste udal batzuekin harremanetan jarri ziren, eta Getariako eta Azpeitiko udalek interesa erakutsi zuten.

«Udal horiek adierazi ziguten gure egoera eta behar berberak zituztela. Ondarroak, Markina-Xemeinek eta Lekeitiok antzeko prozesu bat dute martxan, eta hura erabili dugu lanean hasteko eredu gisa», esan du Zumaiko alkateak.

Haritz Alberdi Getariako alkatearen hitzetan, arazoa «estruturala» da, eta «berandu baino lehen» eman behar zaio konponbidea. Ostolazak dio «oso prozesu naturala» dela hiru udalen arteko lankidetzak. «Ohikoa da horrelako akordioetara iristea, baliabide gutxiago dituzten herri txikietan, batez ere».

Ostolazaren hitzetan, baina, prozesua abiatzea nahi baino gehiago luzatu zen. Izan ere, Zumaiko Udaleko idazkariak lanpostua utzi zuen, eta leku hori bete bitartean, ez zioten gaiari heldu. «Idazkari berria etorri zenean, hiru udaltzainen beren lanpostua utzi zuten, eta, azkenean, gaiari eutsi genion berriz». Orain, behin kudeaketa gomendioa formalizatu eta gero, deialdia martxoan irekitzea aurreikusten dute, eta bertan

zehaztuko dituzte hautagaiek bete beharreko baldintza guztiak.

Gertutasuna, ezinbestean

Ostolazak eta Alberdik azaldu dutenez, lanpostu deialdi horren bitartez «konfiantza eta gertutasuna» oinarri dituzten profilen bila dabilta, bai eta edozein egoeratan euskaraz «arazorik gabe» komunikatzeko gai izango diren langileen bila ere. Gertutasun hori bilatzeko bidean, Alberdik azpimarratu du «oso garrantzitsutzat» daukatela langileek herrien gaineko ezagutza edukitzea. «Herri bakoitzak du bere idiosinkrasia, eta udaltzainen hori ezagutu egin behar dute, herritarrekin kontaktuan egon behar dutelako denbora guztian».

Horregatik, bi alkateek diote helburua dela Azpeitian, Getarian eta Zumaian lan egin nahi duten udaltzainen hautatzea. «Gure herrietara iristen diren udaltzain asko Bilbo ingurukoak izan ohi dira, eta euren asmoa ez da izaten gure herrietan lan egitea bizitza osoan», dio Ostolazak. «Oro har, nahiago izaten dute hiri

handiagoetara joan, eta beste batzuk Ertzaintzan sartzen dira». Alberdi bat dator Ostolazarekin, eta azpimarratu du eskualdeko hiru herri horietan lan egin nahi dutenak hartuko dituztela aintzat: «Ondo dago beste leku batzuetan lan egin nahi izatea, baina guk bermatu behar dugu gure herrietan lan egin nahi duten udaltzainen edukitzea».

Bi alkateek gaineratu dute deialdi bateratuaren helburuetako bat herrietako udaltzaingoen taldeak egonkortzea ere badela. Azpeitian, esaterako, lehen mailako agenteen lau postu beteko dituzte, barne promozio baten bitartez. «Ondorioz, hasiko dugun prozesura lau udaltzain lanpostu gehitzea espero dugu», zehaztu zuen Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak otsailaren 19an egindako prentsurrekoan. Hark esan zuenez, lanpostuak betetzeaz gain, lan poltsa eratuko dute prozesu horri esker, «hiru herrietan aurrerantzean sor daitezkeen beharrei erantzuteko».

Euskara ardatz

Herriaren ezagutza bermatzeaz gain, euskarari ere berebiziko garrantzia emango diote lan eskaintzaren deialdi publikoan. Orain artean bezala, hautagaiek hizkuntzaren B2 maila dutela egiaztatuko beharko dute, eta Ostolazak jakinarazi du azterketak egingo dizkietela hori bermatzeko. «Orain ere B2 maila eskatzen dugu, baina, hala ere, ikusi dugu askotan hori ez dela nahikoa egunerokotasunean zerbitzu on bat bermatzeko». Alberdik gaineratu duenez, herritarrekin ez ezik gainerako langileekin ere euskaraz hitz egitea lehenetsiko dute. «Gure erakundeetako langileen artean euskaraz hitz egin izan da beti, eta aurrerantzean ere hala izatea nahi dugu».

Zumaiko alkateak dio hautagaiei azterketako zatiren bat euskaraz egitea eskatuko dietela. «Ezin dugu bermatu %100ean, baina nekeza litzateke euskaraz azterketa bat egiteko gai izan eta, gero, egunerokotasunean hizkuntza horretan moldatzeko gauza ez izatea». Alberdi bat dator harekin. «Azken finean, gure herrietan euskaraz mintzo gara, eta jakin badakigu euskararen gaineko ezagutza duena gai izango dela zerbitzua gaztelaniaz ere emateko».

Nolanahi ere, Ostolazak esan du langile horiek euren postuetan aritzeko pixka batean itxaron beharko dutela: «Deialdia ireki, helegiteen epeak igaro, azterketak egin, hautatuek formazioak egin... urtebete inguru igaroko da udaltzain horiek lanean hasterako. Deialdia Arkautik egingo balu ere, epeak antzekoak izango lirateke». ●



«Herri bakoitzak du bere idiosinkrasia, eta udaltzainen hori ezagutu egin behar dute, herritarrekin kontaktuan daudelako»

HARITZ ALBERDI

Getariako alkatea

Euskoa, aurki Oiartzualdean eta Baztanen

Euskoa hamabi urtez Ipar Euskal Herrian erabilgarri egon ondotik, Hego Euskal Herrian ere erabili ahal izango da, hala nola Baztanen eta Oiartzualdean.

Urko Iridoy Alzelai

Europar, gehien erabiltzen den tokiko moneta da euskoa. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian erabiltzen da, eta hala izan da azken hamabi urteetan, sortu zenetik. Baina jauzi bat eman nahi du euskoak, eta Hego Euskal Herrian ere erabili ahal izango da laster. Bi eskualde izango dira euskoa erabiltzen lehenak: Baztan (Nafarroa) eta Oiartzualdea. Horrenbestez, Oiartzunen, Lezon, Errenterian eta Pasaian euskoarekin ordaintzeko aukera izango da aurki. «Bi eskualdeetan badago euskoarekiko interesa, beraz, aztertu behar du gure dugu nola txertatu», adierazi du Luix Intxauspe Gizartearen Monetako koordinatzaileak.

Eusko Monetak 2013. urtean sortu zuen euskoa, eta hasieratik euren helburua izan zen tokiko moneta Euskal Herri osora hedatzea. Orain, hamabi urte geroago, 6.000 eragilek parte hartzen dute tokiko monetaren funtzionamenduan, eta 4.000 lagunek baino gehiagok erabiltzen dute. «Denera, 4,3 milioi eusko daude zirkulazioan, eta, horrenbestez, Europako tokiko monetarik garrantzitsuenak da», azaldu du Intxauspek. Gaur egun, Ipar Euskal Herriko 1.400 enpresatan ordaindu daiteke euskoarekin.

Intxausperen ustez, Baztan eta Oiartzualdea eskualdeak elkarren artean «desberdinak» dira.

Baztan «landa eremua» da, eta han garrantzi handia dute tokiko ekonomiak eta ekoizle txikiek. Gainerako eskualdeekin alderatuz, biztanle gutxiagoko eremua da. «Oiartzualdea, aldiz, eremu urbanoa da», dio Intxauspek: «Jende asko bizi da bertan. Komertzio eta zerbitzu eskaintza handia dago, eta martxan dituzte bertako merkataritza zaintzeko proiektuak». Horregatik, euskoa bi eremu desberdinetan erabiltzen hasteko, aztertzen ari dira herri bakoitzean nola txertatu eta zer bide egin. «Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Baztanen eta Oiartzualdean ezin dugu Ipar Euskal Herrian dugun metodoa kopia, gauza asko oso desberdinak direlako. Horregatik, bi eskualde horietan nola hasi jakiteko, herriko eragile askorekin egin behar dugu lan». Batzorde bat osatzeko asmoa dute, herri bakoitzeko eragile eta instituzioekin.

Euskoaren koordinatzaileek «proba pilotu» gisa landuko dute Baztangoa eta Oiartzualdekoa, eta, bide batez, hainbat ondorio atera nahi dituzte hortik. «Bi saiakera horiekin ikusi nahi dugu Hego Euskal Herri osoan nola jokatu euskoarekin, alegia, bi herri horietan erabilitako neurriak beste lekuetan probatu». Hain zuzen ere, otsailaren 8an mintegi bat egin zuten koordinatzaileek, euskoaren zabalpena Euskal Herri osoan sustatzeko,

eta, euskoaren kudeaketaz arduratzen direnez gain, han izan ziren Oiartzualdeko eta Baztango zenbait eragile, bai eta Hego Euskal Herriko instituzio batzuetako ordezkariak ere. «Mintegian Eider Mendozak aipatu zuen horrelako ekintzak oso interesgarriak direla mugaz gaindiko harreman sozial eta ekonomikoak sustatzeko, eta hori funtsezkoa iruditzen zaigu», esan du Intxauspek.

Mugaz gaindiko harremanak
Koordinatzaileak dio euskoan parte hartzen duten enpresen %50ek Euskal Herriko hornitzaile bat topatu dutela euskoa erabiltzeari esker: «Askotan, Ipar Euskal Herriko enpresek Frantziara begiratzen dute hornitzaile bat behar dutenean, eta, Hego Euskal Herrikoek, Espainiara. Honelako ekimenei esker, mugaz gaindiko harreman ekonomikoak sortu ditzakegu, Iparraldeko eta Hegoaldeko enpresak lotuz». Gainera, Intxausperen

ustez, oso garrantzitsua da euskoak tokiko komertzioetan duen eragina. «Erabiltzaileek, beren herriko komertzioetan euskoarekin ordaintzen dutenean, harreman bat sortzen dute negozio txikiekin, eta hori ere oso puntu garrantzitsua da».

Gaur egun, hiru modutara

ordaindu daiteke euskoarekin: eskudirutan, txartelarekin eta aplikazio baten bidez. «Euskoaren erabiltzaileek urtean kuota bat ordaintzen dute», azaldu du Intxauspek. «Monetak lortzeko aplikazioaren bidez, euroak euskoengatik aldatu ditzake, eta, ondoren, horrekin ordaindu. Erabiltzaile bakoitzak aldatutako %3 elkarte sozialei bideratzen diegu. Iaz, adibidez, 75.000 euro banatu genituen 55 elkarteren artean».

Intxauspek uste du, euskoa tokiko komertzioak babesteko tresna izateaz gain, euskara eta euskal izaera babesteko tresna ere badela Ipar Euskal Herrian. «Euskoek Euskal Herriko ekonomia aberasten dute, hori argi dago. Euroekin ordaintzen dugunean, ez dakigu non bukatuko duen euro horrek, baina euskoarekin badakigu soilik hemen gasta daitekeela». Hego Euskal Herrian zirkulazioan jartzen denean, Europako mugaz gaindiko tokiko moneta bakarra izango da euskoa. ●



Euskoa, iaz, Baionako merkatuko arrandegi batean. GAIZKA IROZ



«Baztanen eta Oiartzualdean ezin dugu kopia Ipar Euskal Herrian euskoa erabiltzeko dugun metodoa»

LUIX INTXAUSPE

Gizartearen Monetaren koordinatzailea



MENDIA

Mendiari buruzko atal berria, BERRIAN

Aktualitatea, ibilbideak, proposamenak eta buletina.

Berria.eus/mendia/

aldi hau
kontatzeko
berria

Doako Parkina Denontzat dinamika sortu dute Donostia ospitaleko hainbat langilek

→ Taldeko kideek irtenbidea eman nahi diote langileentzako eta erabiltzaileentzako aparkalekuen eta garraio publikoaren faltaren arazoari.

Miren Mujika Telleria

Donostia ospitaleko langileek Doako Parkina Denontzat izeneko dinamika sortu dute oraintsu. Irtenbidea eman nahi diote langileentzako eta erabiltzaileentzako aparkalekuen eta garraio publikoaren faltaren arazoari. Otsailaren 28an aurkeztu zuten taldea, ospitaleko Arantzazu eraikinaren atarian. «Langileok eta pazienteok nazkatuta gaude ospitaleko aparkalekuaren egoera jasanezinarekin», esan zuten taldeko kideek. «Hilabeteak daramatzagu arazoa salatzen, eta Osakidetza oraindik ez du inolako alternatiba errealik eskaini egoera konpontzeko».

Kideek azaldu zuten langile askok dagokien orduan baino «askoz ere lehenago» joan behar izaten dutela lanera. «Ospitale inguruan autoa aparkatu ezinik ibiltzen gara, bueltaka. Bestela, urrun aparkatu behar izaten dugu, eta ospitaleraino oinez edo autobusez etorri». Horrenbestez, esan dute langile askok eta askok «milaka» ordu galtzen dituztela lanera garaiz iritsi ahal izateko. «Eskaintzen dizkiguten alternatibak hutsaren hurrengoa dira», azaldu zuten. Gainera, haien hitzetan, ospitaleak langileentzako propio antolatzen dituen lotura autobusek eserleku guztiak okupatuak baldin badituzte Illunbe parera ailegatzera, han amaitzen da ibilbidea, eta, beraz, langileek oinez joan behar izaten dute lantokiraino. Badira ospitalera iristeko lineako autobusak ere, baina esan dute gainezka joaten direla eta, beraz, horiek ere Illunbe parean egiten dutela azken geldialdia.

Ostiraleko aurkezpenean salatu zuten Osakidetza Illunben jarri diela behin-behineko aparkaleku bat, baina handik ospitalera oinez joan behar izaten dutela, eta bide horretan ez dagoela inolako argiztapenik. Gainera, autoa aparkaleku horretatik atera behar izaten dute Realak etxean jokatzen duenetan. «Salatzekoa da: Realaren futbol partidaren bat edo udalak antolatutako ospakizunen bat dagoenean, autoak aparkaleku horretatik ateratzeko agindu mezua iristen zaigu posta elektronikora».



Donostia ospitaleko hainbat langile, Doako Parkina Denontzat dinamika aurkezten, otsailaren 28an, Donostia ospitalean. HITZA



«Hilabeteak daramatzagu arazoa salatzen, eta Osakidetza oraindik ez du alternatiba errealik eskaini»

«Onartezina da ospitale batean pazienteek aparkatzeko ezintasunagatik kontsultak galtzea»

**DOAKO PARKINA
DENONTZAT**

Dinamikako kideek diotenez, azken hilabeteetan egoera okertu egin da, baina arazoa lehenagotik dator. Izan ere, Donostia ospitaleko aparkaleku nagusia ordainpekoa izan da urte luzez, hala langile askorentzat nola era-

biltzaileentzat. «Bistan da enpresa pribatuek etekin ekonomikoak ateratzen dituztela lantokirako irisgarritasuna eta ospitalean artatuak izateko eskubidea baliatuz. Eskualde ugaritako langileok urteak daramatzagu ospitalera iritsi ahal izateko alternatibak eskatzen: izan garraio publikoaren eskaintza handitzea, edo Osakidetza garraio zerbitzuak eremu zabalo batera hedatzea». Salatu dute Osakidetza eta instituzio publikoek entzungor egin dietela ia eskakizun guztiei.

Pazienteak eta senideak

«Doako Parkina Denontzat dinamika langileok osatzen dugun arren, eskaera ez da gure kolektiboarena soilik», zehaztu dute. Izan ere, ospitalera ehunka paziente joaten dira egunero, hala nola larrialdietara, kontsultetara eta ospitaleratutako senideak bisitatzen. «Mugikortasun arazoak direla edo zerbitzu publiko desgokiak direla medio, paziente askok autoz etorri behar izaten dute



Donostia ospitaleko hainbat langile, doako aparkaleku baten eske, otsailaren 7an, Donostia ospitalean. LAB

egunero ospitalera. Onartezina da ospitale batean aparkalekua ordainpekoa izatea eta aparkatzeko ezintasunagatik kontsultak galtzea».

Uste dute Donostia ospitaleak enpresa pribatuen etekin ekonomikoak lehenesten dituela pazienteen eta langileen eskubideen gainetik. Eta ohartarazi dute aparkaleku faltaren arazoari

eskaintako konponbideak ez direla errealak. «Eskaini dizkiguten irtenbideen helburua langileon aldarrikapenak baretzea eta Osakidetzaaren aurpegia garbitzea baino ez da». Horrenbestez, Doako Parkina Denontzat dinamika, aparkaleku publiko baten aldeko eskaera zabaltzeaz gain, Osakidetza eskatu dio euren eskariak «behingoz» betetzeko. ●

berria
fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraitan
eta uhinetan

UXUE **Rey**

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**

MUSIKA

Andoain Anari eta Verde Prato. Gaur, 19:30ean, Bastero kulturgunean.

Arrasate Olaia Inziarte. Igandean, 19:30ean, Amaia antzokian.

Azpeitia Izaki Gardenak eta Esanezin. Gaur, 21:30ean, Soreasu antzokian.

Beasain Xurxo Morales Varela & Alejandro Costa Vilella. Igandean, 19:00etan, Igar-tzako multzoan.

Bergara La Furia. Gaur, 21:30ean, Seminarixoan.

Bergara Anari. Igandean, 19:00etan, kartzela zaharrean.

Donostia Ginebras. Gaur, 19:30ean, Viktoria Eugenia antzokian.

Donostia Minskeko Orkestra Filarmonikoa eta Chisinauko abesbatza. Gaur, 20:00etan, Kursaal.

Donostia Sukena. Gaur, 20:00etan, Kutxa Fundazioa Klubean.

Donostia Ultralagrima eta Margarita Quebrada. Gaur, 20:30ean, Dabadaban.

Donostia *Kantuan harresiaz gaindi: Saharar herriaren aldeko abestiak.* Aurora Beltran, Lucia Socam, Carmen Paris, Connie Corleone & Ernesto Cossio, Maite Larburu, Mikel Azpiroz eta Travellin' Brothers. Bihar, 20:00etan, Antzoki Zaharrean.

Donostia Israel B. Bihar, 21:00etan, Dabadaban.

Donostia *Mozarten Requiem.* Santa Zezilia abesbatza eta orkestra. Igandean, 19:00etan, Kursaal.

Donostia Tulsa. Igandean, 19:00etan, Antzoki Zaharrean.

Donostia Kamila Zubeldia & Aguxtín Alkhat. Asteartean, 19:00etan, Santa Teresa komentuan.

Donostia C Mari. Ostegun, 20:30ean, Dabadaban.

Hondarribia Lotura & Reparation Sound System. Bihar, 20:00etan, Psilocyben.

Ordizia Postal kolezionistak. Ostegun, 19:00etan, D'elikatuzen.

Pasaia Gontzal Mendibil. Solasaldi musikatu. Igandean, 19:00etan, Bonantza basilikan.

Villabona Herdoil eta Gorroto bala. Bihar, 22:30ean, Aljibe.



GORKA RUBIO / FOKU

Olaia Inziarte igandean Arrasateko Amaia antzokian

ARRASATE– Olaia Inziartek ur-tarrilaren 13an eman zuen argitara bere bigarren lan luzea —*Zerrautsa*—. Hamalau kantu bildu ditu lanean: *Zerrautsa, Ibili hadi argi, Eman abisua, Tilin-talan, Ravean xuabe, Never be like her, Arin-arin, Kasu, maitia, Kontatuko banizu, Zebat okupatzen du?, Haserre hauek, Naturala, Biziak eta hilak eta Ematen du*. Kontzertuei dagokienez, «modu intimoago batean» aritzeko hautua egin du oraingoan. Igandean Arrasateko Amaia antzokian izango da, 19:30ean. Irudian, Inziarte, iaz, Donostiako Aste Nagusian.

ANTZERKIA

Andoain *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez.* Txalaparta konpainia. Asteazkenean eta ostegun, 18:30ean, Bastero kulturgunean.

Beasain *Heisenberg.* Tanttaka teatroa. Gaur, 20:30ean, Usurbe antzokian.

Donostia *Funanbulistak.* Ultramarinos kultur elkar-tea. Gaur, 19:30ean, Imanol Larzabal aretoan.

Donostia *Saturday Night Disco.* Bihar, 20:00etan, Kursaal.

Donostia *Sehaska-kanta gorriari.* Arte kolektiboa. Igandean, 19:00etan, Imanol Larzabal aretoan.

Eibar *Adiorik ez.* La dramática errante. Gaur, 19:30ean, Coliseo antzokian.

Eibar *Heisenberg.* Tanttaka teatroa. Igandean, 19:00etan, unibertsitatean.

Eibar *Miñan.* Artedrama. Astelehenean, 19:00etan, Coliseo antzokian.

Elgoibar *Eneko eta Ixabel.* Bertako elikagaien bila. Eibabe. Igandean, 16:30ean, herriko antzokian.

Erreterria *Ondas barbaras.* La segunda konpainia. Igandean, 19:00etan, Niessen kulturgunean.

Irun *Atearen bestaldean.* Hika teatroa. Bihar, 17:00etan, Amaia zentroan.

Lezo *Feminissimas.* De ste xeito produkzioak. Igandean, 19:30ean, Gezala auditoriumean.

Urnieta *Puto amor ¿Cómo amamos las mujeres?.* Dora Galvez. Igandean, 19:00etan, Sarobe arte eszenikoen gunean.

Villabona *Zorretan.* Hika teatroa. Igandean, 19:30ean, Gurea antzokian.

Zumarraga *Miñan.* Artedrama. Gaur, 20:15ean, Zelai Arizti aretoan.

BERTSOLARITZA

Amezketza Bertso bazkaria. Amaia Agirre eta Miren Artetxe. Bihar, 14:30ean, herriko elkartean.

Andoain Sahararen aldeko bertso jaialdia. Eneritz Artetxe Eizagirre, Nerea Elustondo, Oihana Iguaran, Aitor Mendi-luze, Andoni Rekondo Izagirre eta Aitor Sarriegi. Igandean, 12:00etan, Bastero kulturgunean.

Berrobi Bertso saio musikatu. Oihana Iguaran, Ane Labaka Maioz eta Ixak Arruti. Bihar, 22:00etan, ostatuan.

Donostia Bertso jaialdia. Oihana Iguaran, Alaia Martin eta Eli

Pagola. Gaur, 19:00etan, Intxaurren kultur etxean.

Errezil Bertso bazkaria. Nerea Elustondo eta Oihana Iguaran. Bihar, 14:00etan, Boron-degi jatetxean.

Pasaia Bertso bazkari musikatu. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal Beñat Antxustegi eta Eneko Sierra. Bihar, 14:00etan, Bixi Bixi kultur elkartean.

Zarautz *Bideak urratzen gaitu* bertso saio musikatu. Uxue Alkorta, Aner Peritz, Maider Arregi eta Miren Artetxe. Gaur, 19:00etan, Modelon.

Zegama Bertso jaialdia. June Aiestaran, Aner Peritz, Eneko Araiztegi, Andoni Egaña, Aratz Igartzabal Bidegain eta Alaia Martin. Igandean, 18:00etan, eskolan.

Zumarraga Martxoan bertsoa txapelketako saioa. Uxurbil, Pinto Pinto eta Tupis tupau taldeak. Gaur, 22:30ean, Huts tabernan.

DANTZA

Azkoitia *genErrorAntz.* Kimuak dantza kolektiboa. Bihar, 19:00etan, Baztartxo antzokian.

Donostia Ots. Haatik dantza konpainia. Bihar, 19:30ean, Gazteszenan.

Hernani Lana. Osa + Mujika konpainia. Ostegunean, 19:00etan, kultur etxean.
Orio Gipuzkoa Dance Contest 2025. Dantza lehiaketa. Igandean, 19:00etan, kiroldegian.

ERAKUSKETAK

Andoain Isidro Langara nazioarteko futbolaria. Argazkiak. Martxoaren 22ra arte, Bastero kulturgunean.

Bergara Taula Periodikoa: Unibertsoa osatzen duten elementuak. Martxoaren 28ra arte, Laboratorium museoan.

Donostia HARRI, ORRI, ARkatz. Martxoaren 15era arte, Okendo kultur etxean.

Donostia Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025. Maiatzaren 11ra arte, San Telmo museoan.

Donostia Eremu magnetiko lehor bat. Santiago F. Mosteyrin. Martxoaren 30era arte, Tabakaleran.

Donostia Minimal organica. Irene Val. Bihar arte, Ernest Lluch kultur etxean.

Donostia Montañas pintadas. Martxoaren 27ra arte, Okendo kultur etxean.

Donostia Visiones cuánticas. Abelardo Gil Fournier, Adriana Knouf, Jaione Camborda eta Joan Heemskerk. Ekainaren 8ra arte, Tabakaleran.

Eibar Eibarko itsas abentura. Martxoaren 30era arte, Armagintzaren Museoan.

Eibar Paseo. Viviane Straub. Martxoaren 23ra arte, Portalean.

Hernani Harri, Lurra, Huts. Maiatzaren 31ra arte, Txillida Lekun.

Irun Martetik Martera. Martxoaren 30era arte, Oiasso erromatar museoan.



GORKA RUBIO / FOKU

Sahararen aldeko bertso jaialdia Andoainen

ANDOAIN– Sahararen aldeko bertso jaialdia egingo dute igandean, 12:00etan, Andoaingo Bastero kulturgunean. Sei bertsolari arituko dira: Eneritz Artetxe, Nerea Elustondo, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Andoni Rekondo eta Aitor Sarriegi. Gai jartzaile lanak Maddi Etxeberriak egingo ditu. Irudian, Elustondo, 2024ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurreko batean, Oiartzunen.

Tolosa L'Estaquirot Teatre-ren 50 urte. Igandera arte, Topicen.

Zarautz Eta, azken batean, hegan. Josetxu Silgo. Martxoaren 16ra arte, Photomuseumen.

Zegama Megalitoak. Eremu sakratuak eta lurralde erreferenteak. Martxoaren 23ra arte, Anduetza parketxean.

HAUR JARDUERA

Arrasate Ipuin kontaketa saioa. Tarama Karime eta Nerea Ariznabarreta. Gaur, 18:00etan, Kulturaten.

Azkoitia Nire burua maite dut. Ipuin kontaketa saioa,

Miru. Ostegunean, 18:00etan, liburutegian.

Ordizia Ipuin kontaketa saioa. Mertxe Aizpurua. Astelehe- nean, 17:15ean, liburutegian.

Orio Azalerako ipuinak. Ipuin kontaketa saioa, Hegoak taldea. Gaur, 17:00etan, kultur etxean.

HITZALDIAK

Donostia Egokitzen literarioak. Paula Ortiz eta Javier Garcia Arredondoren arteko solasaldia. Gaur, 19:00etan, Koldo Mitxelena Kulturunean.

Donostia Literatur solasaldia: Euskal mendizaletasuna komikietan. Igor Leturiak gidatuko du saioa. Ramon Olasagasti

egilea bertan izango da. Asteartean, 19:00etan, Intxaurren kultur etxean.
Donostia Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?. Arantxa Urretabizkaia. Ostegunean, 19:00etan, San Telmon.

BESTELAKOAK

Donostia XIX. eta XX. mendeko Euskal Herrian. Bisita gidatua Maria Sanchez. Asteartean, 11:00etan, San Telmo museoan.



EUSKAL HERRIKO KULTUR EKITALDIEN AGENDA
berria.eus/agenda.html

TAPIA energia
EGUZKI ENERGIA PLAKAK
Diseinatu
Instalatu
Mantendu
40
1985-2025
urte zuzendik gertu
943 889 594
www.tapiaenergia.com


Gipuzkoako Foru Aldundia
DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskadi, auzolana

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Egitaraua

- **Gaur.** Taldekako txapelketako bigarren kanporaketa, Huts tabernan, 22:30ean.
- **Martxoak 14.** Taldekako txapelketako hirugarren kanporaketa, Urola tabernan, 22:30ean.
- **Martxoak 21.** Bertso tailer irekia, Urretxuko kultur etxean, 19:00etan.
- **Martxoak 27.** Gerraz bertso jarrien emanaldi musikatua, Zelai Arizti kultur etxean, 19:00etan.
- **Martxoak 29.** Taldekako txapelketako finala, Gaztelekuan, 19:00etan

← Mikel Iturriotz eta Jon Mendizabal, bertso eskolako kideak.—ASIER ZALDUA

Hilabete oso bat bertsoz

Abian da Martxoan Bertsoa zikloaren 23. aldia. Hainbat ekintza antolatu dituzte aurten, hala nola taldekako txapelketa, bertso ikastaro irekia eta bertso jarrien emanaldi musikatua. Urretxuko eta Zumarragako hainbat txokotan izango dira jarduerak.

Testua:
LIDE EGIZALA

Gaur zortzi hasi zen Martxoan Bertsoa zikloaren 23. aldia, Urretxuko Soraluze tabernan. Aurten, hiru kidez osatutako bederatzi talde ari dira lehian taldekako txapelketan, eta lehenengo kanporaketan Jon Mendizabalek, Jon Gurrutxagak eta Jorge Anduezak osatzen duten *Miletoko Fideua* taldea izan zen garaile. Arkaitz Aizpuru, Mikel Iturriotz eta Gorka Santestebanen *Ziripoto* eta Jon Mata, Aritz Kortabarria eta Alazne Jauregiren *Antzuolako AET* taldeen aurka aritu ziren. Gaur jokatuiko dute bigarren kanporaketa, Zumarragako Huts tabernan, eta honako hiru talde hauek arituiko dira kantuan: Antton Fernandez, Uxue Fernandez eta Aitor Agirreren *Uxurbil* taldea, Manex Mantxola, Ander Kerejeta eta Jon Aztiriaren *Tupis Tupau* eta Amaia Iturriotz, Eli Zaldúa, Ekaitz Samaniego, Paula Amilburu eta Xabi Antiaren *Pinto Pinto*.

Astebete barru jokatuiko dute

hirugarren kanporaketa, hilaren 14an, Zumarragako Urola tabernan. Han lehiatuko dira azken hiru taldeak: *Bertso Olariak* —Ane Beloki, Lierni Ugarte eta Jone Narbaiza—, *Meaka ala Trekutz?* —Mattin Aranburu, Martin Sagastibeltza eta Ibai Zabalo— eta *Xelebrek* —Uhaitz Oiartzabal, Sustrai Goenaga eta Amets Zubizarreta—. Saio bakoitzeko talde irabazlea finalerako sailkatuko da. Martxoaren 29an jokatuiko dute finala, Urretxu-Zumarragako gaztetxean. Kanporaketa guztiak 22:30ean izango dira, eta finala, berriz, 19:30ean.

Bertsoaren hilabetea

Txapelketaren izenak dioen bezala, martxoan zehar Urretxu-Zumarragan egiten duten bertso zikloa da Martxoan Bertsoa. 2003. urtean herriko bertso eskolako gazte talde bat hasi zen hura antolatzen, eta dagoeneko «jarduera ezaguna» bilakatu da Goierrin. Bertso eskolako kideek jende aurrean trebatzeko esparru bat izan zezaten sortu zuten, bai eta bertsoa herrira eta tabernetara eramateko helburuz ere.



Jardueraren ardatz nagusia taldekako txapelketa den arren, ohiko moduan, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte. Aurtengo aldirako, bertso ikastaro irekia eta bertso jarrien emanaldi musikatuak, esaterako. Martxoaren 21ean izango da bertso ikastaroa, 19:00etan, Urretxuko kultur etxean, eta martxoaren 27an, berriz, *Gerraz* bertso jarrien emanaldi musikatuak, 19:00etan, Zumarragako kultur etxean. Egun horretan, Negu Hurbilak taldeak XX. mendeko gerrei jarritako bertsoak kantatuko ditu Zumarragako kultur etxean, eta musika izango dute lagun.

Mikel Iturriotz bertso eskolako kidearen esanetan, herrian harrera «ona» du Martxoan Bertsoa zikloak. Hala eta guztiz ere, uste du gazteen presentzia «apala» izan dela azken urteetan. Esan du pandemiaren ondotik jendea erakartzea lortu bazuten ere bertsoetan hasteko jauzia ematea zaila egiten dela gaur egun. «Jende gaztea animatzen bada, normalean, gai-jartzaile lanak egiteko edo beste modu batean laguntzeko mugitzen da».

Egoera hori iraultzeko, parte hartu nahi duen orori «erraztasunak» jartzen saiatzen dira. «Iaz bertso eskolak antolatzen ibili ginen, eta aurtun bertso tailer irekia antolatu dugu», Iturriotzek azaldu duenez. Nolanahi ere, antolatzaileek gazteenak erakartzeko egindako ahaleginak ez ditu esperotako emaitzak eman. «Erabaki genuen neurri kontzienteak hartzea belaunaldi gazteen parte hartzea bultzatzeko: ariketak erraztuz, aurrez girotze afariak eginez eta sare sozialak erabiltzen hasiz, besteak beste. Baina handiegia da oraindik bertsoaren eta publikoaren arteko distantzia. Horrek ez luke hala izan beharko, eta horri buelta eman nahi diogu».

Iturriotzek dio txapelketaren bueltan sortzen den giroa baliatu nahi dutela jendea erakartzeko. «Tailerrarekin hasiko gara taldekako txapelketaren atsedean asteburuan, eta, hain zuzen ere, txapelketan sortzen den giroa aprobetxatu nahi genuke jendea animatzeko». Bertso tailerretan, Martxoan Bertsoan egiten dituzten ariketa berak landuko dituzte, «lagunartean eta giro onean». «Gure helburua da hilean behin bertso eskolak egitea datorren urteko aldiak sasoi ona izan dezan».

Iturriotzek gaineratu du kultura «jende garrantzitsu eta serioak» soilik egiten duela badirudi ere, Martxoan Bertsoa eta antzeko zikloek aurkakoa erakutsi nahi dutela. «Erakutsi nahi dugu, trebakuntza pixka batekin, edozeinek parte hartu dezakeela txapelketan». Gainera, antolatzaileei iruditzen zaie euskara gaueko eremura eramatea eta hizkuntza «dibertsio klabeetan» erabiltzea «oso ariketa interesgarria» dela. «Uste dugu garrantzitsua dela euskara ingurune desberdinetara eramatea, hori ere badelako jende gehiago erakartzeko beste modu bat».

Bertso eskola

Abenduan lortu zuten haurren bertso eskola berriro martxan jartzea. Otsailetik ekainera bitartean, asteartero izango dira klaseak, 16:45etik 17:45era, Urretxuko kultur etxean. Aratz Igartzabal Bidegain *Potto* bertsolaria da Ikastaroaren dinamizatzailea, eta parte hartzaileek hitzak, errimak, doinuak eta bertsoak lantzeko aukera izango dute saioetan, betiere, jolasen bidez. Iturriotzek dioenez, bertso eskolaren erronka nagusia eskola «egonkortzea eta indartzea» izango da, eta, hala, Martxoan Bertsoa ziklora jende berria erakartzea. ●

↑ Kontuz Atsuak taldea, 2013an, Martxoan Bertsoa zikloan, Urretxu-Zumarragako gaztelekuan. HITZA

→ Aurtengo Martxoan Bertsoa txapelketako lehen kanporaketa, gaur zortzi. HITZA

gorriti | martínez

48 urte baino gehiago leiho eta kanpo-itxitura lanetan Donostia eta Gipuzkoan



Donostia
San Martin, 64
943 464 477

Zarautz
Zigordia, 44
943 130 157

Errenteria
Biteri, 48
943 529 678

Irun
Hondarribia, 39
943 612 446

Tolosa
San Frantzisko, 14
943 650 192

Beasain
Jose Migel Iturrioz z/g
943 165 301

Iturria Biltegiak
Ezurriki, 6 - Irun
943 633 188

KÖMMERLING SCHÜCO CORTIZO GEALAN VELA K-LINE

www.gorritimartinez.com

«Zahartzeko eredu berri bat asmatzen ari gara, tradizionala baino askoz ere dibertigarriagoa dena»

**ARANTXA
URRETABIZKAIA**
Idazlea eta kazetaria

Arantxa Urretabizkaia 'Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?' hitzaldia emango du martxoaren 13an, Donostiako San Telmo museoan.

Miren Mujika Telleria

Gaur egun, jende gehiagok zeharkatzen du 80 urteren langa, eta Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947) idazle eta kazetariak dio saso horri aurre egiteko «maparik gabe» abiatu direla asko eta asko. Hainbat belaunaldikiderek batera, zahartzaroa bizitzeko eredu berri baten bila ari da, bere ustez, eredu tradizionala baino «askoz ere dibertigarriagoa» dena. Ez du erabakiak hartzen diren lekutik aparte bizi nahi, eta, hain zuzen ere, horretaz arituko da, besteak beste, martxoaren 13an Donostiako San Telmo museoan emango duen *Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?* hitzaldian.

Zertaz ariko zara solasaldian?

Lehenengo kontatuko dut zahartzeak zergatik lotsatzen gaituen orain eta zergatik ez gintuen lotsatzen duela hamarraldi batzuk. Paradigma aldatu delako da hori. Lehen, helduaroan zegoen bizitzaren gailurra: helduak zeuden tontorrean, eta gazteak ginenok heldu izateko aprendizak ginen. Orain erabaki dugu bizitzaren gailurra gaztaroa dela eta gaztarotik aurrera dena doala maldan behera.

Noiz aldatu zen hori?

Duela mende erdi baino gehixeago. Onartu dugu dikotomia bat: *gazte* berdin *on*, *zahar* berdin *txar*.

Eta zergatik dela uste duzu?

Zahartzea oso gaizki ikusita dagoelako. Zahartzaroa kasik gaixotasun bat kontsideratzen da. Hortik dator gure nortasun agiriak dioena baino itxura gazteagoa emateko egiten dugun ahalegina. Denok gaude erronka horretan, eta horixe da hautsi behar dena. Nik ez nuen paradigma berri hori asmatu, baina nire belaunaldiak bai. Orain muturrera etorri zaigu



GORKA RUBIO / FOKU



SOLASEAN

paradigma hori, bumeran baten gisan, eta hor gaude harrapatuta. **Izan ere, zer da zaharra izatea?** Begira: haurtzaroan dagoen pertsona bat haurra da, gaztaroen dagoena gaztea da, helduaroan dagoena heldua da... Baina zahartzaroan dagoena ez da zaharra. *Hirugarren adineko pertsona* edo *nagusia* erabiltzen du jendeak norbait zaharra dela esateko. Nik hitzaldietan zera esaten dut beti: «Ni zaharra naiz». Eta beti dago norbait esaten didana ni ez naizela zaharra. «Zaharrak trapuak dira. Zure ideiak eta zure burmuina gazteak dira», esaten didate. Batzuetan isildu egiten naiz, baina nire burmuina da nire belaunak bezain zaharra.

Uste duzu emakumeak gizonak baino gehiago lotsatzen direla zahartzeaz?

Segur aski, bai. Jendeak horregatik esaten du emakume bati ez zaiola sekula adina aipatu behar. Esprikatu digutelako gure kapitala edo gure botere nagusia gaztetasuna, edertasuna eta ama izateko gaitasuna direla. Eta hori galtzen dugunean batzuk sentitzen dira non dauden ez dakitela. Noraezean bezala. Hala ere, iruditzen zait, gizonak, gu baino geroago, baina tranpa berean erortzen ari direla. Horrekin lotuta, lagun antropologo batek kontatu zidan aspaldi ilea tindatzeak mezu bat transmititzen duela antropologikoki.

Zer mezu?

«Ni oraindik zure geneak bideratzeko gauza naiz»: horixe esan nahi du ilea tindatzeak, nonbait.

Eta zuk zer mezu transmititu nahi diezu Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak? hitzaldira joaten direnei?



«**Hirugarren adineko' pertsona edo 'nagusia' erabiltzen du jendeak norbait zaharra dela esateko**»

«**Onartu behar da batzuek ez dugula erabakiak hartzen diren lekutik kanpo bizi nahi**»

Ni ez naiz zahartzaroan aditua. Zahartzaroan aditu bilakatu nau 80 urteko protagonistak dituzten bi eleberri idatzi izanak [3 *Mariak* (Erein, 2010) eta *Azken etxea* (Pamiela, 2022)], baina ez naiz gerontologoa, ezta soziologoa ere. Hitzaldian zerbait transmititu nahi badut da zahartzeko modu tradizionala erabat desagertu dela. Nik ez daukat ezer modu tradizionalan zahartzeko ahalegina egin nahi dutenen aurka, baina eredu berri bat asmatzen ari gara, tradizionala baino askoz ere dibertigarriagoa dena.

Uste duzu garrantzitsua dela zahartzaroari behar duen tokia ematea?

Hori ez dago pertsona argi edo jeno baten eskuetan, belaunaldi oso baten eskuetan baizik. Kontua da, gizartearen historian lehenengo aldiz, belaunaldi oso batek zeharkatu duela 80 urteren langa, eta maparik gabe abiatu direla mundu horretan. Agian izango dute iparrratza, baina maparik ez. Guztion artean osatu behar dugu mapa hori. Gizarteak baldintza batzuk jartzen dizkigu behin adin bat ezkerre, eta nik aspaldi gainditu nuen gizarteak ezartzen digun adinaren langa hori.

Zer baldintza?

Gizarteak esaten dizu deskantsatu egin behar duzula. Etengabe deskantsatu, egunean 24 orduz. Hori bai, baldintza bat jartzen dizu: deskantsatu, baina erabakiak hartzen diren lekuetatik urrut. Erabakiak besteek hartuko dituzte zuretzat. Noski, zure onerako. Erabakiak hartzen dituzten horiek izan litezke erakundeak, osasun sistema edota seme-alabak. Hori hautsi nahi ez duenak eta nahi duenak bere bizitza Benidormen edo Altean pasatu, konforme. Baina onartu behar da batzuek ez dugula erabakiak hartzen diren lekutik kanpo bizi nahi. Guk gure ahotsa behar dugu, eta zainduak izan nahi dugu, bai, baina guk nahi dugun bezala, gizartearen parte garelako. «Nik gaztetan hau egin nuen», «nik gaztetan beste hura egin nuen»... Nik ez dut inori halako txaparik sartzen ibili nahi. Bizitzako azken hogeitaz pasatzen dugu denbora gaztetako kontuak kontatzen, eta ez dugu beste proiekturik izaten, ez bada irautea. Eta ez zait gaizki iruditzen, baina nik ez dut nahi gizartetik aparte bizirik iraun bakarrik. Zera entzun behar izaten dugu askotan: «Zure garaian...».

Eta zer erantzun du horrek?

«Aizu, barkatu, garai hau nirea bezain zurea da»: horixe. ●